

Arantxa Artano Arruabarrena

*Andoain,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Andoainen jaio zen, Kale Berrian. Aita Amezketakoa zuen eta ama, bera bezala, Andoaingoa. Bost senide izan ziren eta bera denetan gazteena zen. Denda txiki bat zuten eta, batez ere, janaria saltzen zuten, nahiz eta alpargatak eta halakoak ere izan. Josten ikasi zuen orduan, ohikoa zen moduan, baina magisteritzako ikasketak egin zituen gero, eta irakasle izan zen orduetik. Andoainen bizi izan da beti.

Zintak

AND-055

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-11-10
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Andoaingo Kale Berriko giroa lehen

- **Erref:** AND-055/005
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Txikitan, kalean asko jolasten zuten. Garai hartan, ez zegoen zirkulazio handirik, baina hainbat garraio mota igarotzen ziren beraien kaletik. Etxe aurrean, garbitegia zegoen; eta, han emakumerik ez zegoenean, uretan jolasten aritzen ziren. Etxetik gertu, iturri bat zegoen, beti ura ematen zuena. Inaxio taberna zegoen beraien kalean, eta gidariak han gelditzen ziren. Kalean giro handia egoten zen.

2. Arropa garbitzeko irrikan egon arren, ezin

- **Erref:** AND-055/006
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Gobara egiteko irrikan egoten ziren arren, beraiei ez zieten uzten arropa garbitzen. Ama bera bakarrik moldatzen zen arropa garbitzeko. Orduko emakumeek lan gogorrak egiten zituzten, oraingo erosotasunik gabe.

3. Bizitzarekiko ikuspegia aldatu da gizartean

- **Erref:** AND-055/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:06:31. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Lehen, emakumeak ez ziren sartzen tabernetan; Arantxa gaztea zela, oso gutxitan sartzen zen, huskeriak hartzera. Lehengo emakumeek lan handia egiten zuten, denetariko lanak. Lehen, etxeetan jende gehiago bizi zen elkarrekin, denentzat zegoen lekua; hori, gaur egun, aldatu egin da. Bizitzarekiko ikuspegia aldatu da gizartean, oro har.

4. Ama emakume oso txukuna zen

- **Erref:** AND-055/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Emakumeek lehen etxeko martxa guztia eramaten zuten. Arantxaren ama emakume oso garbia zen; denda zeukaten, eta beti txukun egoten zen. Arantxak lurrean erratza pasa behar izaten zuen, eskolara joan aurretik. Galtzerdiak konpontzen ere ikasi zuen amarengandik.</p>

5. Lehengo konfiantza dendari eta bezeroen artean

- **Erref:** AND-055/009
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Lehen, diru gutxiago zegoen. Eta dendara erosketak egitera baserrietatik etortzen ziren lagunek trukearen bidez ordaintzen zuten. Amak gizarte-kontzientzia handia zuen, eta ulerkorra zen bezeroen zailtasun ekonomikoekiko. Lehen, dendan, errazago fidatzen ziren dendariak bezeroekin, elkar ezagutzen baitzuten.

6. Errazionamenduko janaria banatzeak ematen zituen lanak

- **Erref:** AND-055/011
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:14:38. **Bukatu:** 00:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu garaia gogoan du. Orduan, ama bere onetik ateratzen zen; lan handia ematen baitzion dendan janaria banatu beharrak. Arantxari izugarri gustatzen zitzaion olio banatzea. Olio-ontziak nolakoa izaten ziren azaltzen du.

7. Errazionamenduaren alderdi administratiboa

- **Erref:** AND-055/012
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:16:37. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Errazionamenduko gorabeherak: kartilak, kontabilitate-liburuak... Noizean behin, kontuak begiratzera etortzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta ez dakit zenbat gauza gehiyo etortzen zian rasionamenduan... A, eta gero kartillak. Bakoitzak zun bere kartilla. Kendu behar zendun kupoya eta hori dena.
- Hortan ibiltzen zifan zu?
- Bai. Bai, bai, bai. Iten nun hori eta gero haiek ordenatu... ordenatu ere bai, baiño ordenatu gehiyo eta liburu batian kontabilidadia eman nere ahizpa zaharraguak iten zun. Eta gero, rebisiyuak egoten zian.
- Zein etortzen zan rebisiyua itea...
- Ba, "abastos" edo ez dakit nola deitzen zan... "de abastos" edo holako zerbait. Bai. Aber ondo zeuzkazun denak. Bai, bai.
- Ze etortzen zan e... inspektoren bat edo?
- Bai. Bai, bai. Bai, begirutzen nola zegoen.

8. Jolasean, lehen baino kezka gutxiagorekin

- **Erref:** AND-055/014
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:18:18. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetan, kalean ahal bezain beste aritzen ziren jostatzen. Orain lehen baino beldur handiagoa dago umeen ongizatearen gainean. Non jolasten ziren azaltzen du. Behin, jolasean zebilela, Arantxak istripua izan zueneko kontakten du.

9. Lehengo jolasak, etxetik urruti, ahal zela

- **Erref:** AND-055/015
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Lehengo jolasak aipatzen eta azaltzen ditu. Ahal zutela, etxetik urrutiratzen ziren, horrela, amak ez ikusteko.

10. Umetan jolastu; gerora, nahi izanez gero, ikasi

- **Erref:** AND-055/016
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:22:46. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Lehen, ez zuten jostailu askorik, beste era batera jolasten baitziren. Denbora libre gehiago izaten zuten; eta gerora ikasi zuten. Magisteritza ikasi aurretik, josten ikasi zuen Arantxak, amak hala gomendatu baitzion. Azkenean, 40 urte inguru zituela, magisteritza ikasi zuen. Arantxari beti gustatu izan zaio ikastea.</p>

11. Ikastolen mugimenduan murgilduta

- **Erref:** AND-055/019
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Magisteritza ikasitakoan, ikastolan hasi zen lanean, eta han eman zituen 24-25 urte. Ikastolen mugimenduan lan handia egin zuen Arantxak, baita irakasle sartu aurretik ere. Kanpaldietan asko ibili izan zen; eta hala deskubritu zuen Nafarroako paisaia.</p>

Transkripzioa

- Ta magisteritza in ta gero irakasle lanian e...
- Ikastolan. Ikastolan. Bai, bai. 24 urte. 24-25 urte pasa nittun.
- Zuk magisteritza ikasteako ya ordurako ikastolak eta...
- Bai, bai... baino nik ikastolan beti lana in izan dut. Ez irakasle bezela hasieratik, baiño atzetik lan asko. Izugarri. Izugarri e... Nola beti itzalian edo... barrurago, barrurago egon bihar du jende bat, ba, bai.
- Beharko zan ordun?
- Bueno, bueno. Bihar zan hor... Eta nahiz e... ikasleekin ez euki harremana gero eratu genittun kanpaldik. Ta kanpalditan, bueno... ni hamar urte ibili nitzan kanpalditan. Eta... eta gaiñera urtero herri ezberdiñeta juanda. Eta zergatik? Ba, gehien bat zan... Nafarroa aldea asko juañan. Nik Nafarrua ezagutu nuen askoz gehiyo edo deskubritu in nuen, agian da hitza, ba, kanpaldiak eman zian bide hori. Zeatik juaten giñan toki ezberdiñetara. Ta hain kontraste haundik dauzka Nafarruak e... baiño ederra da benetan.

12. Euskaraz egiteko kontzientzia eman zioten etxean

- **Erref:** AND-055/021
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Etxean dena euskaraz egiten zuten; aitik ez zien uzten ezer-ezer erdaraz esaten. Herriko eskolara joaten zen. Kaleko jendea, ordea, oso erraz joan zen erdarara. Berak, aitari esker, euskararekiko kontzientzia hartu zuen. Garai batean, kaleko giroa dena erdaraz izaten zen.

13. Hizkuntzak jakiteari ez zitzaion baliorik ematen

- **Erref:** AND-055/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:32:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Ama Andoaingoa zuen; eta, dendako lanari esker, erdara primeran ikasi zuen. Lehen, hizkuntzak jakiteari ez zitzaion balioa ematen. Arantxari beti gustatu izan zaio frantsesa, eta bere kontura ikasi zuen heldua zenean.

14. Euskarari buruzko iritzia

- **Erref:** AND-055/024
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>"Hizkera garbiei" buruzko iritzien ikuspegia adierazten du. Euskara batuarekin konforme dago, hizkuntza estandarra behar delako, hizkuntza normalizatu nahi badugu.</p>

Transkripzioa

- Bat garbiya esan beharko bazenuen edo bat hola... politta edo garbiya edo dana?
- Ba, bai, ba, nei terminologi hoyek ez... ez... ez die konbentzitzen. Klaro, nik neria dut eta iruitzen zait garbiya dala, baino ni iñoiz ez naiz eongo e... esaten dunakin: "eske zuena ze politta dan! Guria askoz'e zatarrago da". Ez, jauna. Netzako hitz ein in bihar da eta kitto. Ta bakoitza berea. Eta ni euskera batuakin oso konforme nago e! Konforme nago e... gehiyen bat e... idazteko ta hola e... Euki dezagun zea bat hizkuntza guztik daukaten bezela. Nere iritziya e...
- Oso ondo.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com